2023_Tolosa
Otsaila
16-21

TOLOSA

# inauteriak

# agurra

Ate joka ditugu gure Inauteri Kuttunak. Ilusio, emozio eta urduritasunak. Gogotsu gaude jai giroan murgiltzeko, aurten bai, erabateko normaltasunean. Girorik onenean, tolosarrok dakigun eran, lagun eta familia artean.

Desberdinak eta bereziak izango dira baita ere aurtengo Inauteriak tolosarron umore, alaitasun eta irudimenari esker. Hainbat pertsonek egindako eta egingo duten lanari esker ere bai. Isilpeko lan mardula, herriari eta herritarrei jairik onenak eskaintzeko.

Desberdinen arteko topagune izan daitezela datozen egunak, errespetuan, elkarbizitzan eta berdintasunean oinarritutakoak.

Ozen esan nahi dut erasorik gabeko jaiak nahi ditugula, emakumeok ere jaiez era askean gozatzeko eskubidea dugulako; eta ez dezagula ahaztu guztion eginbeharra dela eraso sexisten aurrean erantzutea.

Eta guztion elkarlana ere ezinbestekoa da herria txukun eta garbi mantentzeko, zeregin horretara baliabide ugari bideratu eta ikaragarrizko ahalegina egingo badugu ere, urtero legez.

Tolosarrok egiten ditugu Inauteriak berezi eta bakarrak eta ohorea da, beste behin alkate gisa inauteriez gozatzeko eta zuei guztioi jai zoriontsuak izan ditzazuela opatzeko aukera izatea.



Nuestro querido Carnaval está a la vuelta de la esquina. Ilusión, emoción y nervios. Y ganas, muchas ganas de que comiencen las fiestas. Celebraremos el Carnaval, este año sí, con total normalidad y tal como sabemos los y las tolosarras, por todo lo alto, entre amistades y familia.

Los carnavales de este año también serán distintos y especiales, gracias al humor, a la alegría y a la imaginación de los y las tolosarras. También, gracias al trabajo de muchas personas. Un trabajo de cocina que en ocasiones no se ve, pero está, para ofrecer las mejores de las fiestas a la ciudadanía.

Espero que estos días festivos sirvan de unión y sean un punto de encuentro entre diferentes, unas fiestas basadas en el respeto, la convivencia y la igualdad.

Una vez más, quiero decir alto y claro que queremos unas fiestas sin agresiones, porque también las mujeres tenemos derecho a disfrutar de las fiestas libremente; y no olvidemos que es un deber de toda la ciudadanía responder de manera activa ante las agresiones sexistas.

Y también es imprescindible la colaboración de la ciudadanía para mantener el municipio limpio, aunque dediquemos a ello muchos recursos y un gran esfuerzo, como cada año.

Los carnavales de Tolosa son únicos gracias a las y los tolosarras. Es un honor como alcaldesa tener la oportunidad de disfrutar de estas fiestas y poder desearos unos felices Inauteriak 2023!

Gora Tolosako Inauteriak!

Gora Tolosa!

Olatz Peon Ormazabal

Tolosako Alkatea

# Sukaldek 50 urte





**SUKALDE SG elkarteak 50. urteurrena ospatuko du 2023an.** 1973ko ekainaren 12an, lagun talde batek SUKALDE SK elkartea eratzea erabaki zuen, eta gure Tolosa maiteko Enperadore kaleko 21.ean finkatu zuten egoitza. SUKALDE jarri zioten izena, gastronomiarako eta sukaldaritzari lotutako jardueretarako zaletasunagatik. Lorenzo Rodriguez Alonso izan zen lehengo lehendakaria, ondo gogoan duguna.

Elkartearen sortzaile haien izandako grina eta bizitasuna dela eta, udalerrian antolatzen diren zenbait jardueretan presente ditugu; nola ez, gure INAUTERIETAN eta SAN JOAN JAIETAN, baita Tolosan egiten diren beste zenbait jardueratan ere.

Aurten ospatuko dugu gure txaranga Tolosako inauterien parte hartzen hasi zeneko 50. urteurrena, etenik gabe beteak, eta izen ona lortu du gainera gure txarangak, musika maila altuagatik. Urte hauetan guztietan zuzendari bat baino gehiago izan ditugu, eta lortu dute, batuta hartuta eta gauzak ondo eginez, gure txaranga Tolosako inauterietako erreferentzia bihurtzea. SUKALDEko kideok oso harro ekartzen ditugu gogora PEDRO GOROSTEGI, ENRIQUE UGARTE, DOUGLAS MONEO eta CARLOS MUÑOA zuzendari izandakoak eta orain zuzendari dugun KOLDO TARRAGONA. Gure herritik kanpo ere ibili da txaranga, beste udalerri batzuetatik deituta joandakoan; adibidez, Ermuko eta Calahorrako jaietan.

Horiez gain, aipatu nahi ditugu urte hauetan guztietan inauterietan saio eta emanaldiak eskainiz parte hartu duten konpartsak ere.




*> Aurtengo inauterietan Sukalde Txarangak Habanera berria estreinatuko du.*

Aipatu beharrekoa da gure eskopetari konpainia ere, antzinakoena baita SAN JOAN egunean Tolosako kaleetan desfilatzen ibiltzen direnen artetik.

Gogoan ditugu FELIX OCHOA, VICENTE MARTINEZ, JAVIER UGARTE (GOTERAS) eta JOXAN TELLERIA kapitain izandakoak eta gure oraingo kapitaina, JOSERRA ALTUNA, gure konpainiaren historiaren parte direnak guztiak ere.

Horrek guztiak eta bestelako jarduera ugarik (lehiaketa gastronomikoak, mus txapelketak...) osatzen dute gure HISTORIA. Aurten, 2023an, gogora ekarri nahi dugu historia hori, bai eta SUKALDEko kide diren eta izan diren guztiak ere, 50 urte hauetan egin duten ekarpen bikainagatik.

Aurten, TOLOSAko ekitaldi berezietan egon nahi dugu, SUKALDE elkarteari omenaldia egiteko, eta urteurrena behar bezala ospatzeko.

**GORA SUKALDE!**





# txarangen egutegia

Irteera egunak: ■

| | OSTEGUN GIZENA | ZALDUNITA | ASTELEHENITA | ASTEARTITA |
|---|---|---|---|---|
| Aiz-Orratz/Veleta | ■ | ■ | ■ | zezen plaza |
| Arco-Iris | ■ | ■ | zezen plaza | ■ |
| Kabila | ■ | zezen plaza | | ■ |
| Sukalde | ■ | zezen plaza | | ■ |
| Txapel Haundi | ■ | sokamuturra | | sokamuturra |
| Urdiña Txiki | ■ | ■ | | zezen plaza |
| Alcoyano | ■ | zezen plaza | | ■ |
| Pintxana | ■ | | | ■ |
| Poca Tripa | ■ | | zezen plaza | ■ |
| San Esteban | ■ | | | zezen plaza |
| Tolosano | ■ | | zezen plaza | |
| Ero-etxe | ■ | | ■ | |
| Iurre | ■ | ■ | | |
| Txinparta | ■ | | ■ | |
| Kabi-alai | ■ | | | ■ |
| Arsenal | ■ | | | |
| Berazubi | | | sokamuturra | ■ |
| Gure kaiola | | | ■ | |
| Terete txaranga | | | ■ | |



Egilea: Laura Sanz

# aurrekontua inauteriak 2023

| | |
|---|---|
| Karroza eta konpartsak | 30.335,70€ |
| Txarangak | 79.450€ |
| Emanaldi eta ikuskizunak | 70.502,75€ |
| Danborradak | 15.281€ |
| Argitalpenak eta komunikazioa | 17.580€ |
| Egile eskubideak | 2.000€ |
| Gastu orokorrak | 51.020,90€ |
| **Guztira** | **266.170,35€** |

# zerbitzuen direktorioa



# Go goan izan

- Ongi etorri Tolosara gurekin jaiez gozatzera.

  Bienvenidos y bienvenidas a Tolosa a disfrutar de nuestro carnaval.

- Jai alaiak eta gogotsuak desio ditugu.

  Deseamos unos carnavales donde prime la alegría y diversión.

- Parte hartu eta ondo pasa, baina errespetuz.

  Participa y disfruta, pero con respeto.

- Zaindu inauteriak, neurtu bolumena. Zaratak ez dezala algara isildu.

  Cuida los carnavales. Controla el volumen. Que el ruido no acalle la risa.

- Alkoholarekiko jarrera arduratsua izan.

  Actúa responsablemente con el alcohol.

- Norbaiti zerbait gertatuz gero, LAGUNDU iezaiozu.

  Ayuda a quien lo necesite.

- Inauterietan ere birziklatu, berrerabili eta zaborra gutxitu. Zaindu inauteriak!

  En carnavales también recicla, reutiliza y reduce la basura. ¡Cuida los carnavales!

- Ez oztopatu garbiketako lanak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela gainontzekook festetan ondo pasa dezagun.

  No obstaculices el trabajo del personal de limpieza. Piensa que algunos trabajan para que los demás podamos disfrutar de las fiestas.

- Komun publikoak erabili.

  Utiliza los baños públicos.

- Zerkausian jantokia dago eta Lapurdi plazan Herri Sagardotegia.

  Hay comedor en el Tinglado y sidrería en la plaza Lapurdi.

- Inauterien jarraipen osoa egingo du Udalak www.tolosa.eus-en.

  Seguimiento completo del carnaval en www.tolosa.eus.

- Tolosak EZETZ! dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano. #LIBRENonahi.

  Tolosa dice ¡NO! a la violencia sexista. Joka sano. #LIBRENonahi.

- Edozein arazoren aurrean Tolosako Udaltzaingoaren telefonora deitu (24 orduko arreta zerbitzua): **943 67 58 58.**

  Ante cualquier problema llama al teléfono de la Policía Municipal de Tolosa (Asistencia 24 horas): **943 67 58 58.**






## SEXU-BIZI

**Gune morea - Babes gunea**
Espacio de información y protección

**Otsailak 19-20 Febrero**
24:00etatik – 03:00etara

**San Frantzisko Eliza ondoan**
Junto a Iglesia San Francisco

## ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE, JARRERA AKTIBOA IZAN!

POR UNAS FIESTAS LIBRES DE AGRESIONES SEXISTAS, ¡ACTÚA!

TOLOSA
berdintzalea

**Tolosako Udaltzaingoa**
24 orduko arreta zerbitzua
Policía Municipal de Tolosa
Asistencia 24 horas
**943675858**

## JOKA SANO
**Ondo pasa, pasa gabe!!!**

otsailak 11

# Kaldereroak



**10:30**

Tolosako Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroez lagundurik. Irteera Gernikako Arbola Plazatik.

Gigantes y cabezudos desde Plaza Árbol de Gernika.



**12:00**

Aiz-Orratz/Veleta elkarteko txaranga irtengo da elkartetik bertatik.

Salida de la charanga Aiz-Orratz/Veleta.



## 12:30

Haur Jaialdia,
Aiz-Orratz/ Veleta
Elkarteak antolatuta,
Leidor aretoan.

Festival Infantil organizado por
Aiz-Orratz/Veleta en el Leidor.



## 19:00

**URDIÑA TXIKI ELKARTEAK ANTOLATUTA, KALDEREROEN KONPARTSA ATERAKO DA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN PARTE HARTZEAREKIN PLAZA ZAHARRETIK.**

**COMPARSA DE CALDEREROS. ORGANIZADO POR URDIÑA TXIKI ELKARTEA, DESDE LA PLAZA VIEJA.**





## 23:30

Incansables
txaranga kalez
kale.

Charanga Incansables.



# otsailak 12

## 12:00

Inauterietako kontzertua,
Tolosako Udal Musika Banda eta
Udal Txistulari Banda, Berdura
Plazan. Hodeiertz abesbatzak
parte hartuko du.

Concierto; Bandas Municipales de Música
y de Txistularis en la Plaza Verdura. Con la
colaboración del coro Hodeiertz.

otsailak 16

# oste gun gizena



## 11:00

Udal Txistulari Bandak Inauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiko ibilbidea.

Txistularis; zortziko de carnaval.

## 11:45

Kabi-Alai elkarteak pregoia emango du udaletxetik.

Pregón de Kabi-Alai desde el ayuntamiento.



otsailak **16** ostegun gizena





**12:00**

## PLAZA ZAHARREAN, SUZIRIA JAIEN HASIERA IRAGARTZEKO.

### CHUPINAZO EN LA PLAZA VIEJA.



**12:00**

Pintxana eta Kabi-Alai txarangen irteera, Plaza Berritik eta Plaza Zaharretik.

Charangas Pintxana y Kabi Alai desde la Plaza Vieja y la Plaza Nueva.



**16:30**

Zezen Plazan zezen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangek girotuta. Ondoren, kalejira.

Vaquillas y pasacalles con la charanga Kabi-Alai.

**19:00**

Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

Tamborrada del Aurrera K.E.

otsailak 17

# osti ral mehea

## 11:30

Ozenki Txistulari taldearen kalejira.

Txistularis, Ozenki taldea.






## 16:30

Zezen Plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangak alaituta. Ondoren, kalejira.

Vaquillas y pasacalles con la charanga Kabi-Alai.

## 22:30

Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.

Festival de Viernes Flaco en el Leidor, organizado por Arpegi.




## 20:30

**OSTIRAL MEHE EGUNEKO DANBORRADA.**

**TAMBORRADA DE VIERNES FLACO.**



## 23:30

Jainekin txarangaren irteera.

Charanga Jainekin.

otsailak 18

# Zaldunita bezpera



## 11:00

Tolosako Erraldoi eta Buruhandiak, Tolosako Dultzaineroez lagundurik. Irteera Gernikako Arbola Plazatik.

Gigantes y cabezudos.

## 11:00

Aiz-Orratz/Veleta elkarteko TXU-TXU Trena ibiliko da kaleetan barrena.

El tren TXU-TXU de la sociedad Aiz-Orratz/Veleta recorrerá las calles de Tolosa.

## 11:30

Udaberri Dantza Taldeak antolatuta, Dantzari Txikien kalejira abiatuko da Triangulotik.

Pasacalles de dantzaris desde el Triangulo organizado por Udaberri Dantza Taldea.

## 11:30

Musika eskolako ikasle bandaren kalejiraren irteera, musika eskolatik.

Pasacalles con el alumnado de la Escuela de Música.








## 12:00

Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.

Salida de la Charanga Kabi-Alai.

## 17:00

**HAUR DANBORRADA AIZ-ORRATZ/ VELETA ELKARTEAK ANTOLATUTA, GELTOKI KALETIK IRTENGO DA.**

**TAMBORRADA INFANTIL DE AIZ-ORRATZ/VELETA. SALIDA DESDE LA CALLE GELTOKI.**

## 17:00

Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.

Salida de la Charanga Kabi-Alai.

## 19:00

Tolosako Danborradaren irteera Plaza Zaharretik, Numen Dantza Eskolako kosakoen partehartzearekin.

Salida de la Tamborrada desde la Plaza Vieja, con la participación de los/las cosacos/as de Numen Dantza Eskola.

## 23:30

Oriako Txaranga eta Iraunkorrak txarangak kalez kale.

Charangas Iraunkorrak y Charanga del Oria.

otsailak 19

# zaldu nita



## 8:00

### DIANA, TOLOSAKO UDAL MUSIKA BANDAREKIN.

**DIANA CON LA BANDA DE MÚSICA DEL AYUNTAMIENTO.**

## 8:45

Udal Txistulari Bandak ohiko ibilbidea eginez, Inauterietako Zortzikoa joko du.

Txistularis, Zortziko de Carnaval.



## 10:00

Txarangen irteera.

Salida de charangas.

## 11:00

Plaza Zaharrean sokamuturra Txapel Haundi txarangak alaituta.

Sokamuturra con la charanga Txapel Haundi en la Plaza Vieja.

otsailak **19** zaldunita

**11:00**

Karroza eta konpartsen irteera.

Salida de carrozas y comparsas.

**15:45**

Udal Txistulari Bandak Idiarena joz egingo du ohiko ibilbidea.

Txistularis realizarán el habitual recorrido tocando Idiarena.

**16:00**

Kalejira Sukalde, Alcoyano eta Kabila txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazaraino.

Pasacalles; Sukalde, Alcoyano y Kabila desde la Plaza Vieja a la Plaza de Toros.









**16:30**

Zezenak Zezen Plazan; txarangak eta Udal Txistulari banda arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.

Vaquillas amenizadas por las charangas y la Banda Municipal de Txistularis.

**19:00**

**DANTZALDIA BERDURA PLAZAN KALEJIRA SUKALDE, ALCOYANO ETA KABILA TXARANGEKIN.**

**BAILABLES EN LA PLAZA VERDURA.**

**23:30**

Oriako Txaranga eta Kalean txarangak kalez kale.

Charangas Kalean y Charanga del Oria.





otsailak 20

# aste lenita

**11:00**

Karroza eta konpartsen irteera.

Salida de carrozas y comparsas.

**14:30**

Pottotte elektrotxaranga Oria kaletik, Alondegiko Plazaraino.

Elektrotxaranga Pottotte desde la calle Oria hasta la Plaza Alondegi.

**16:00**

Ayvee + DJ Oihan Vega Alondegiko Plazan.

Ayvee + DJ Oihan Vega en la Plaza Alondegi.







**9:00**

Txarangen irteera.

Salida de charangas.

**11:00**

Plaza Zaharrean sokamuturra Berazubi txarangak alaituta.

Sokamuturra en la Plaza Vieja con la charanga Berazubi.

otsailak **20** astelenita









## 16:00

Kalejira Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.

Pasacalles; Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris desde la Plaza Vieja hasta la Plaza de Toros.



## 16:30

**ZEZENAK ZEZEN PLAZAN; TXARANGAK ARITUKO DIRA IKUSKIZUNA ALAITZEN. ONDOREN KALEJIRA.**

**VAQUILLAS AMENIZADAS POR LAS CHARANGAS.**

## 19:00

Dantzaldia Berdura Plazan, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.

Bailables en la Plaza Verdura con las charangas Tolosano, Poca Tripa y Arco Iris.



## 23:30

Bonberenea eta Incansables txarangak kalez kale.

Charangas Bonberenea e Incansables.

otsailak 21

# aste ar tita



## 6:00

Udal Txistulari Bandak Alborada joko du udaletxeko arkupetan, Berdura Plazan eta Felipe Gorriti Plazan.

La Banda Municipal de Txistularis tocará la Alborada en la Plaza Vieja, Plaza Verdura y Plaza Felipe Gorriti.

## 8:00

Elkarteetako txarangek alaituta, Pattar zezena Zezen Plazan. Ondoren kalejira.

Toro del aguardiente y charangas.







## 11:00

Karroza eta konpartsen irteera.

Salida de carrozas y comparsas.

## 11:00

Plaza Zaharrean sokamuturra Txapel Haundi txarangak alaituta.

Sokamuturra en la Plaza Vieja amenizada por la charanga Txapel Haundi.

# 21 otsailak asteartita

## 12:00

Plaza Euskal Herrian txarangen bilkura; Casino, Sukalde, Arko Iris eta San Esteban txarangen eskutik. Euria bada, Berdura Plazan. Ondoren kalejira Gaztelako Ateraino.

Alarde de charangas en la Plaza Euskal Herria. Si llueve, en la Plaza Verdura.








## 15:45

Udal Txistulari bandak Idiarena joz egingo du ohiko ibilbidea.

La Banda Municipal de txistularis realizará el recorrido tocando Idiarena.

## 16:00

Urdiña Txiki, San Esteban eta Aiz-Orratz/Veleta txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.

Pasacalles desde la Plaza Vieja a la Plaza de Toros.

## 16:30

**ZEZENAK ZEZEN PLAZAN; TXARANGAK ETA UDAL TXISTULARI BANDA ARITUKO DIRA IKUSKIZUNA ALAITZEN. ONDOREN KALEJIRA.**

**VAQUILLAS AMENIZADAS POR LAS CHARANGAS Y LA BANDA MUNICIPAL DE TXISTULARIS.**



## 19:00

Dantzaldia Berdura Plazan Urdiña Txiki, San Esteban eta Aiz-Orratz/Veleta txarangekin.

Bailables en Plaza Verdura con las charangas San Esteban, Urdiña Txiki y Aiz-Orratz/Veleta.

## 23:30

Incansables txarangaren irteera.

Charanga Incansables.